



Ekoizpena

(RAWIK Radio Aus- und Weiterbildung im Interkulturellen Kontext-etik hartua)

Irratsaio baten antolakuntza eta prestaketa

Irratsaio bat zenbait atalekin osatu ohi da, bakoitza bere formatu propioarekin (esaterako, magazineak, berriak, gehigarriak, musika atalak, hizketaldiak eta abar). Irratsaioaren formatua eta egitura saioaren izaera edo deskribapenean zehazten dira, baita saioaren hurrenkera zehazten duen eskaletan ere. Sorkuntza-askatasunaren zenbatekoa irratsaioaren eta esatariaren izaeraren arabera izango da.

Zenbait diseinu-elementu aurkezten dira irratsaio batean zehar. Esaterako, magazine batean:

- Jinglea (saioaren soinu propioa, bereizgarria)
- Saioaren aurkezpena (esatariak entzuleak gidatuko ditu saioan zehar, elementuak iragarri eta gai nagusiak aurkeztuz).
- Ordueroko errepasoa.
- Musika.
- Kuña (jarraian datozen elementuentzat).
- Aurrerakina (saioaren edo gaiaren aurrerapen labur bat, testuduna normalki, musikarekin eta pasarteekin).
- Atala (erreportajea, elkarrizketa, iruzkina, eta abar).
- Kirolari, eguraldiari, trafikoari zein bestelako gertaerei buruzko berriak.
- Ohiko atalak (saioa errepikatzen diren atalak, normalki leku berean joaten direnak, hala nola asteroko diskoa, lehiaketak entzuleekin...).

Saioaren egitura – magazine saio batekin adibide gisara

Magazineak agurrekin eta saioaren itxura definitzen duen zerbaitekin hasi ohi dira. Hau horretarako propio sorturiko jingle bat edo musika pieza bat izan daiteke, zeinak aldartea edo tonua ere definitzen duen.

Saio hasieran aurkezleak landuko diren gaiak aipatu ere egiten ditu. Irratsaio hasiera al bait erakargarrien eta zirrargarrien egin behar da, entzuleen arreta erakartzeko. Denbora tartea zehatz-mehatz prestatu behar dira aldez aurretik, irratsaioa adostutako ordutegian edo denbora tartean sar dadin, irratsaioaren gai aniztasuna mantenduz (atal honen bukaeran irratsaio baten txostena atxikita dago, adibide gisara).

Irratsaioaren egitura eta drama-konposiziorako zerrenda

- Non kokatzen ditut gai serioak eta non errazagoak?
- Zein elementu dira bereziki interesgarriak eta gaiaren hariari dagozkionak? – Hauek estrategikoki kokatu behar dira saioaren egituran.
- Ba al daude prestatutako elementu erregularrak, aldez aurretik definitutako denbora tartetan egokitzen direnak? (esaterako, berriak, aholkuak edota esanak)
- Zein erritmo behar du saioak? Saioaren zein ehuneko izango du musikak, zein hizketarako tartea?
- Entzuleriak noiz behar ditu kontzentratzeko tartea eta noiz tarte libreak?
- Zein elementuren artean egin nitzake lotura onak?

Denbora tarteen antolakuntza adosterakoan, garrantzizkoa da gutxieneko denbora tartek gordetzea ezusteko atzerapenak integartzeko. Hizkuntza bat baino gehiagotan arituko den edonork denbora gehiago behar du. Horrez gain, gutxienez 3, baina ahal dela 5 minutu programatu beharko lirakeke saio bukaerako musikarako, hurrengo irratsaiorako espazioa libratu eta haiei kokatzeko astia emateko.

Eskaleta eta txosten zehatza

Eskaletak, ordu oso eta bakar bateko saioaren eduki guztiak antolatzen ditu, bakoitzari dagokion lekua zehatuz. Hainbat ordutako iraupena daukaten saioek, hartzen duten ordu oso kopurua beste eskaleta beharko dituzte. Eskaletak diseinu elementuen antolaketazaltzen du, modu horretan egitura orekatzen lagunduz.

Eskaletaren oinarrian, saioaren hurrenkera orria prestatzen da. Honek eduki guztiak ordena kronologikoan zerrendatzen ditu, eta saioaren diseinuaren oinarria da. Non kokatzen dira jingleak? Noiz hitz egingo da musikazko giro-soinu batekin batera? Nork aurkeztuko du zein hizkuntzatan? Eta abar...

Hau da, banan-banan, aurkezlearen gidoiaren oinarria.

Example of a show rundown sheet

| Name of show: Politburo | | | | | | | |
|---|---|---------------------|---------------|-----------|----------|---------------------------|--------------------------|
| Show date / time: Sunday, 05/07/2009, 18:00-19:00 | | | | | | | |
| Presenter: Nicole Meier | | Music: Nicole Meier | | | | Technician: Detlev Müller | |
| No. | Content | Artist / author | Sound carrier | Track no. | Time | Length | Remarks |
| 1 | Politburo jingle | Politburo | PC | 1 | 18:00:00 | 00:00:43 | |
| 2 | Greeting / introduction | Presenter | Live | | 18:00:43 | 00:01:00 | |
| 3 | Cecilia Ann | Pixies | CD | 1a | 18:01:43 | 00:02:06 | Caution, stops suddenly! |
| 4 | Union story | Nicole Meier | Live | | 18:03:49 | 00:04:00 | |
| 5 | Workers' united front song | Tom Schneider | CD | 5 | 18:07:49 | 00:02:38 | Out after 2:38! |
| 6 | Intro: Founding of Verdi regional office | Presenter | Live | | 18:10:27 | 00:00:30 | |
| 7 | Founding of Verdi regional office | Detlev Müller | PC | 5 | 18:10:57 | 00:05:10 | |
| 8 | Get up, stand up | Bob Marley | PC | 3 | 18:16:07 | 00:03:12 | |
| 9 | Intro: Globalisation | Presenter | Live | | 18:19:19 | 00:00:30 | |
| 10 | Globalisation item | Anja Graf | PC | ? | 18:19:49 | 00:05:17 | |
| 11 | Get a move on! | Mr. Scruff | CD | 1 | 18:25:08 | 00:03:28 | (Fade out at 2:30) |
| 12 | Intro: Conti works council | Presenter | Live | | 18:28:32 | 00:01:00 | |
| 13 | Conti works council item | Anja Graf | MD | | 18:29:32 | 00:04:00 | |
| 14 | Intro: IGM youth camp | Presenter | Live | | 18:33:32 | 00:01:00 | |
| 15 | IGM youth camp item | Detlev Müller | MD | 22 | 18:34:32 | 00:03:43 | Raise level!!! |
| 16 | Susanne zur Freiheit | Fishmob | CD | 2 | 18:38:15 | 00:04:12 | |
| 17 | Intro: Future of IGM | Presenter | Live | | 18:42:27 | 00:00:30 | |
| 18 | Debate on future of IGM | Jo Baumann | MD | | 18:42:57 | 00:02:40 | |
| 19 | One by one | Chumbawam ba | CD | 6 | 18:45:37 | 00:05:45 | Out earlier! |
| 20 | Intro: Köter interview | Presenter | Live | | 18:51:22 | 00:00:30 | |
| 21 | Köter item | Detlev Müller | PC | | 18:51:52 | 00:04:35 | |
| 22 | Closing remarks over 45 sec. ramp of Bachelorette | Björk | CD | 7a | 18:56:26 | 00:03:33 | |
| | | | | | 19:00:00 | | |

Tresnarik garrantzitsuena: belarria

Irratian, zein soinu lortzen den da gakoa. Eta soinua ona izateko, ekipamendua zuzen egon behar da. Beraz, tresnarik garrantzitsuena giza-entzumena da. Soinu ona zerk lortzen duen

jakitea ahalbidetzen digu: jatorrizko soinua (elkarrizketa batean jatorrizko soinua, zaratak, eta abar) musika baino altuagoa edo baxuagoa den, tonu grabeago batek ahotsari gertutasuna emango dion edo erreberberazio efektua ongi geratzen den jakitea ahalbidetzen digu. Erritmikoki ere, musika lausotzeko instant egokia den, edo musikaren erritmoak eta ahotsaren tempoak noiz elkar hartzen duten jakiteko balio du, eta abar.

Entzumenak soilik esan diezaguke elementu teknikoak noiz dauden zuzen doituak eta noiz diren funtzionalak. Beraz, arretaz entzutea funtsezkoa da irrati-lanean. Entzumena zolitu dezakegu landuz gero, eta denborarekin are hobeto identifikatu soinu egokia bera.